JARDUKETA IZENA	C4 Oiokiko eremua lehengoratzea

Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Leitzaran ibaia

LOTURA NATURA 2000rekin

Oiokiko eremua lehengoratzea Natura 2000ko plangintza-helburu hauen baitan dago:
- Ibai Korridore Ekologikoa kudeaketarako funtsezko elementuaren 3. helburu operatiboa: "Ibai korridorean oztopoak ezabatzea. Honako jarduketa honekin lotua dago, zehazki: "AP1. Proiektuak prestatu eta gauzatzea, KBEan edo inguruetan erabiltzen ez diren emakidei loturiko oztopoak iragazkortzeko/eraisteko", eta Oiokiko presa txikia berariaz dago jasoa.
- "*Parachondrostoma miegii* eta Komunitate iktikoa oro har" kudeaketarako funtsezko elementuaren 2. helburu operatiboa: "KBEan dauden arrain espezieen gaineko eraginak ezabatzea", Ibai Korridore Ekologikoaren jarduketei lotzen zaiena.

Era berean lotua dago Leitzaran ibaiak izokin arrunta (*Salmo salar*) izateko duen gaitasun potentzialarekin.

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen:
- Zuzenean KBEa Kudeatzeko Planaren funtsezko elementuontzat da onuragarria: "Ibai Korridore Ekologikoa", "Bisoi europarra (*Mustela lutreola*)" eta "*Parachondrostoma miegii* eta komunitate iktikoa oro har".
- Halaber onuragarria izan daiteke Batasunaren intereseko izokin arrunta espeziarentzat (*Salmo salar*).

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Leitzaran ibaia. Elduaingo eta Berastegiko udalerriak.

Data

2018ko eta 2019ko udak

Aurrekontua

235.548 €

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

- Oztopoa eta hari loturiko aldaketak erabat ezabatzea.
- Zentral hidroelektrikoko instalazio zaharrak kentzea, eta ingurua baso-eremu gisa lehengoratzea (baimenak lortzen badira).

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Oiokiko presa txikia beste oztopo gaindiezin bat da Leitzaran ibaiko fauna urtarrarentzat.

Lanaren deskribapena – HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA

Ia 7 metro altuerako jauzia sortu du, eta 37 metroko luzera du ibaiertzetik ibaiertzera. Haren ondoan, paper-orea egiteko Olamia izeneko lantegi zahar baten hondakinak daude. Lehenago, zentralak lantegia elektrizitatez hornitu zuen. Ingurune horretan ere badago eraikin txiki bat eta zentral

hidroelektrikoko transformazio zentroa.
Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA
Oztopoa bere osoan eraistea proposatu da, ibaiaren ohe harritsura iritsi arte, eta gainerako egitura abandonatuak ere bai: eraikinak, ubidea, hormak, etab. Halaber, jarduketa bateratua egitea proposatu da, behar diren baimenak eskuratuz gero, inguru osoan: presa txikia, eskala, eraikinak eta erantsitako instalazioak, ibaia bideratzeko hormak eta ur bilduko eremuaren ondoko pista. Inturiarako aurreikusia dagoen antzeko estrategiarekin, presa txikia bi fasetan eraistea aurreikusia dago, ibaia aldaketatara egokitu dadin.
JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK
Oiokiko presa ezabatzea espero da. Beharrezkoa den administrazio-prozesua epe barruan moldatzea lortzen bada, halaber inguruko industria-hondakinak kenduko dira (paper lantegi zaharra, zentraleko eraikina, transformadorea, etab.). Inguru osoa ibaiertzeko baso-eremu gisa lehengoratuko da.



Irekibai · Natura 2000 · Life · Gipuzkoako Foru Aldundia · Diputación Foral de Gipuzkoa · ura · hazi · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, S.A. · Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

C4: Oiokiko eremua lehengoratzea